


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHU_n IKERTZAILEAK PRESTAKUNTZARAKO
KONTRATATZEKO DEIALDIA**

2016

ATARIKOA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ikerkuntza-gunerik handiena izaki, eskuordetuta du unibertsitateko pertsonal titulatuak ikerkuntzan prestatzeko eginkizuna eta, hori dela eta, doktorego tesien laborazioa sustatzen du; horrexetarako, pertsonal ikertzaileen prestakuntza helburu duen honako laguntza deialdi hau argitaratzen du.

Egungo gizartean ezinbestekoak dira doktoreak, bai testuinguru produktiboan bai sozialean. Unibertsitateak doktoreak hezi behar ditu eta ahaleginak egin behar du prestakuntza hori, jakintzan eta berrikuntzan aurrera doan gizarteari egoki dakion, gizartean bertan emakume eta gizonen jakintza, batzuen eta besteen eskubide, erantzukizun eta aukeren berdintasunean txertatuz. Doktoregoko ikasketek, karrera akademiko bat egiteko prestatzeaz gain, enpresa, erakunde eta instituzio berritzaileetan langile gaituak sartzeko aukera ematen dute.

UPV/EHUn sortzen da EAEn sortzen den unibertsitate mailako euskarazko ekoizpen zientifiko gehiena. Euskara bezalako hizkuntza baterako, oraindik ere zeharo estandarizatuta ez dagoelarik, ezinbestekoa da ikertzaileen lan eta ekarpena euskaraz egin eta zabal dezatela. Euskarako errektoreordetzak arlo hau bultzatu nahi izan du azken urteotan eta, horretarako, sustapen lana egiten du doktorego tesiak euskaraz egin daitezzen. Hortaz, UPV/EHUn euskararen II. plan zuzendarian (2013-2017), gobernu kontseiluak 2013ko abenduaren 19an onartuta, era honetako ekimenekin jarraitzeko asmoa berresten da.

Honako deialdi hau, hortaz, batera aurkeztu dute Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eta Euskararen arloko Errektoreordetzak, bi modalitatetan egituratuta, deialdiaren 1. oinarrian adierazi bezala.

I. modalitaterako finantzaketa Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ematen du, 4.000.000 eurotako zenbatekoaz, "Doktorego aurreko laguntzak indartzea (ohikoa eta COFUND) eta doktoreak ingurune sozioekonomikoan txerta daitezzen sustatzea" izeneko programa kontratuaren B27 ekintzaren kargura.

II. modalitaterako finantzaketa Euskararen arloko Errektoreordetzak ematen du, 566.000 eurotako zenbatekoaz, "Euskarazko doktorego tesiak sustatzea" izeneko programa kontratuaren B17 ekintzaren kargura.

Errektoreordetza biok konprometitutako finantzaketaz ordainduko dira errektoreordetza bi horiek lehenago burututako deialdien bidez emandako laguntzei legezkiekeen urteko ordainketak eta doktorego osteko kontratu berrien lehenengo urteko ordainketak.

Horretara, Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzarako batzordearen (aurrerantzean IGBB) proposamenaren ostean eta gobernu-kontseiluak 2016.eko apirilaren 21ean onetsi ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordetzak eta Euskararen arloko errektoreordetzak erabaki dute subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdiaren xedea da unibertsitateko tituludunak UPV/EHUn doktorego programetan prestatzea, baita ezagutza zientifikoaren edozein arlotako doktorego tesiak egitea ere, doktorego aurreko kontratuaren bidez, Zientzia, Teknologia eta

Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Deialdi honen bidez berrituko dira aurreko deialdietako onuradunen beka eta doktorego aurreko kontratuak, baldin eta aurkeztutako txostenetan urteroko tarteko ebaluazioa gainditzen badute.

Egungo deialdi honek bi modalitate jasotzen ditu:

- I. modalitatea: doktorego aurreko prestakuntza orokorrean ari diren ikertzaileen kontratazioa.
- II. modalitatea: doktorego aurreko prestakuntzan ari diren ikertzaileen kontratazioa, doktorego tesia euskaraz egin dezaten.

Deialdi honetan parte hartzeko eskaria bakarra izango da eta bertan modalitateetako bat edo biak hautatu ahalko dira.

2. oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK:

Deialdi hau Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen aplikazio eremuan sartzen da; deialdi honetan erabili beharreko kontratu modalitatea 21.artikuluan arautzen da.

2.1. Kontratuaren helburua proiektu espezifiko eta berritzaile baten barruan ikerketa lanak egitea izango da. Kontratatutako langileak prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzailetzat hartzen dira.

2.2. Kontratua idatziz egingo dute prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileek (langile gisa) eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (enplegatzaile gisa).

2.3. Kontratatutakoa, beraz, UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, doktorego tesia bertan egingo duelarik.

3. oinarria. ESKATZAILEEN BALDINTZAK

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

3.1. Bizileku baimenaren jabe izan, Europako Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan.

3.2. UPV/EHUren doktorego programa batean matrikulatuta egon. **Betebehar hau kontratua formalizatzerakoan egiaztatu beharko da.** Eskatzailearen ardura izango da eskarian zehaztutako doktorego programan matrikulatzea, ezarritako epe eta moduan.

3.3. Eskatzaileak ondoko baldintza hauetariko bat bete beharko du:

- a. Lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura, gradu edo pareko tituluaren jabe izan, eskaria aurkezteko unean, aipatutako ikasketa hauek 2013ko ekainean edo geroago amaituta.
- b. Unibertsitate tituludunen kasuan, lehenago osasun prestakuntza espezializatuko plazetarako dagokion proba sarrerako prestakuntzan plaza lortu izana eta osasun zientzien espezialitateetako baten titulu ofiziala lortu izana, programa bateko bi urteko prestakuntza ebaluazio positiboaz gainditu badute. Bi urte hauen amaiera 2013ko ekainean edo geroago izango da.

3.4. Ikertzaile ez doktoreei zuzenduta dauden eta helburu gisa ikertzaile horiei prestatzen eta doktorego tesia egiten laguntzea duten programetako bekarik jaso ez izatea Ikertzaileen Estatutuari buruzko urtarrilaren 27ko 63/2006 EDren bidez.

3.5. II. modalitatearen kasuan, eskatzaileek egiaztatu beharko dute euskararen C1 ziurtagiria dutela.

4. oinarria. TESI ZUZENDARIEN BALDINTZAK

4.1. Tesi zuzendari bat ezin izango da ageri eskari batean baino gehiagotan. Baldintza hau bete ezean, ezetsi egingo dira ukitutako eskari guztiak.

4.2. Tesi zuzendari bat baino gehiago direnean, gutxien dela, horietako bat izango da eskarian adierazitako doktorego programako irakasleen zerrendan, eskaria egiteko unean.

4.3. Tesi zuzendarietako batek gutxienez izan beharko du UPV/EHUrekiko lotura funtzionarial zein estatutu edo kontratu bidezkoa, eskaria agertzeko unetik eta laguntza gauzatzeko tarte edo epe osoan zehar.

4.4. Tesi zuzendariek Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalak (CNEAI) azken sei urteetan emandako ikerketa seiurteko bat edo pareko beste agentzia batek egindako ebaluazio positiboa (seiurteko aktibo baliokidea) izan beharko du gutxienez.

4.5. Tesi zuzendarikideen kasuan, tesia aurkezten deneko doktorego programakoak ez badira ere, hauek ere izan beharko dute gutxienez Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalak (CNEAI) azken sei urteetan emandako ikerketa seiurteko bat edo pareko beste agentzia batek egindako ebaluazio positiboa (seiurteko aktibo baliokidea).

4.6. Tesi zuzendarikideak lehenago aipatu den seiurteko eta parekoen sistema baliatzerik ez balu, eskariarekin batera "Tesi zuzendariaren ekarpen zientifikoa" izeneko dokumentua aurkeztu beharko da, deialdi honen III. eranskinean agertzen dena.

Dokumentua Ikerketaren arloko Errektoreordetzak bidaliko du graduondoko ikasketen zerbitzura, Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzaren doktorego batzordearen aurrean tramita dadin.

Tesia zuzentzeko gaitasunaren analisia ezezkoa izango balitz, hala jakinaraziko zaio eskatzaileari, 11.1 oinarrian ezarritako prozedurari jarraiki.

Hau honela izanik ere eta baldintzak hartarako aukerarik emanaz gero, berehalakoan jakinaraziko zaio eskatzaileari eskarian adierazitako tesi zuzendariaren ezegokitasuna, hautabiderik bilatu eta 12.1 oinarrian adierazitako epea amaitu baino lehen adieraziko badu.

5. oinarria. KONTRATUEN IRAUPENA

5.1. Kontratuak iraupen zehatza izango du eta arduraldi osokoa izango da.

5.2. Kontratuak urtebete iraungo du eta, programan egon bitartean, urtebeteko hiru alditan luzatu ahal izango da, betiere, doktorego programako batzorde akademikoak edo, hala badagokio, doktorego eskolak aldeko urteko txostena egiten badu.

Kontratuaren aurrerantzeko luzapenak aurrekontu erabilgarria edukitzearen menpe egongo dira.

Nolanahi ere, kontratua luzatuko bada, ezinbesteko baldintza izango da eskarian adierazitako doktorego programan matrikula egitea. **Ez da programa aldaketarik onartuko luzapena egiteko.**

Hasierako kontratuaren eta luzapenen guztirako iraupena ezin izango da lau urtetatik gorakoa izan, salbu kontratua % 33ren minusbalioetasuna edo goragoko pertsona batekin sinatu bada. Kasu honetan, balioetsiko da kontratua gehiago luzatzeko aukera, kontratatutako pertsona doktoregoko prestakuntzarako eperik luzeena arduraldi osoan agortu arte.

5.3. UPV/EHUk ezin izango du inor kontratatu mota honetako kontratuen bidez lau urtetatik gora, beti ere zenbatuta beste erakunderen batean kontratu modalitate honen bidez izandako aldia.

5.4. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

5.5. Ikerketaren arloko errektoreordeak eten ahal izango dio beka interesatuari sei hilabetez gehienez ere, bekadunak horretarako eskari arrazoitua eginez gero. Hori eginez gero, etenaldi hori ezingo da berreskuratu eta laguntza erabakian ezarritako epean amaituko da. Laguntza etenda dagoeneko aldian, baja emango da gizarte-segurantzari. Etenaldiaren ondoren laguntza berriz jasotzeko izapideak egin ezean, bekari uko egin zaiola ulertuko da, eta automatikoki emango zaio baja.

6. oinarria. KONTRATUEN ORDAINSARIA

Formalizatutako kontratuetako ordainsari gordina 14.545 eurotako izango da lehenengo urtean, 14.545 eurotako bigarrenean, 18.182 eurotako hirugarrenean eta 18.182 eurotako laugarrenean, hamalau ordainketatan banatuta.

7. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

7.1. Eskubidea dute txertatzen diren sail, institutu edo guneen laguntza eta sostengua jasotzeko, hauen baliabideen neurrian, beren ikasketak eta ikerketak egiteko, beti ere tokian tokiko erabilgarritasunaren barruan.

7.2. Kontratutako langileek Unibertsitateko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorak (SGIker) eta dagokien ikertaldearen azpiegiturak eta materiala erabiltzeko eskubidea

izango dute. Era berean, eskubidea izango dute sailaren ikerketa baliabideak erabiltzeko, eta ikertaldeak bere ikerlana egiten duen ikastegiko baliabideak ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez betiere.

7.3. Deialdi honen babesean kontratatutako langileek **zeregin osagarriak egin ahal izango dituzte** proposatutako ikerketa-jarduerarekin erlazionatutako **irakaskuntza lanetan** (gehenez 60 ordu urtean), dagokion sailarekin hitzarmena egin ondoren eta UPV/EHUren zerbitzura dauden langileentzako bateraezintasunei buruzko indarreko araudiari lotuta. Zeregin horietan inoiz ezin izango dute irakasgaien arduradun izan, probak egin edo ikasleak ebaluatu.

8. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

8.1. Eskarian adierazitako doktorego programan urtero matrikula formalizatu, UPV/EHUren graduondoko batzordeak ezarritako epe eta tartetean.

8.2. Zeinek bere lana egin adskribitutako sailean, institutuan edo gunean.

8.3. Txosten, formulario eta gainerako dokumentuak betetzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak edo deialdia kudeatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

8.4. UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdi hau aipatzea kontratuak iraun bitartean egindako ikerketa jardueren ondoriozko argitalpenetan eta bestelako emaitzetan.

8.5. Eskumena duten organoek bere ikerketa jardunaren inguruan egin ditzaketen egiaztapen, finantza kontrol eta segimendu jarduerak onartzea eta horretarako eskatutako informazio guztia ematea.

8.6. UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, prestatzen ari diren ikertzaileen ikerketa-lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitortpenari betiere eutsiz.

8.7. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikoak betetzea.

9. oinarria. TESI ZUZENDARIEN BETEBEHARRAK

9.1. Tesi zuzendarien betebeharra izanen da doktoregaiei emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, laguntza indarrean den bitartean tesia zuzendari gisa arituko direlarik. Era berean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote tesiaren defentsa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

9.2. Deialdi honen babesean kontratatutako langileek doktore gradua lortzen badute, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri ematea.

9.3. Txosten, formulario eta gainerako dokumentuak betetzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak edo deialdia kudeatzen duten zerbitzuek bidalita.

10. oinarria. ESKAEREN FORMALIZAZIOA

10.1 Eskariak **nahitaez** bete behar dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunean (<http://www.ikerkuntza.ehu.eus>) diren formulario ofizialetan.

Eskariaren formularioa behin bete eta gero, berori PAPEREAN eta FORMATU DIGITALEAN aurkeztuko dira (**PDF y Word**) USB, CD edo DVD biltegiragailu batean, deialdian eskariak aurkezteko zehaztutako epearen barruan. Honekin batera, EUSKARRI DIGITALEAN (**PDF besterik ez**) honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- a. **Eskaria egiteko inprimakia**, Herritarrek zerbitzu publikoak eskuratzeko sarbide elektronikoari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 legearen 13. artikulua 2. atalean zehaztutakoarekin bat eginik, tesi zuzendariak eta, tesia egingo deneko sail, intitutu edo guneko zuzendariak sinatu beharko dute, sinatzeko erak ondoko hauek izanik: NAN-e, administrazio publikoek aintzatetsitako ziurtagiri elektronikoa edo eskuz egindako sinadura originala. Honetara, ez da eskaneatutako sinadurarik onartuko. Dokumentu hau paperezko euskarrian aurkeztu beharko da.
- b. **Akademi ziurtagiri pertsonala**, lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura, gradu edo parekorik, non lortutako kalifikazio guztiak eta horiei dagozkien datak agertzen diren. Ziurtagiriak agertu behar du eginiko irakasgai eta kreditu guztiek osatzen dutela lizentziatura, edo horren baliokidea.
- c. **Atzerrian egindako unibertsitate ikasketen batez besteko nota baliokidearen ziurtagiria, Kalitatea Ebaluatu eta Egiartzatzeko Estatuko Agentziak (ANECA) emana**. Ikasketak atzerrian egin dituzten pertsonak ez beste inork ez du agiri hau aurkeztu behar. ANECAren zerbitzu atariaren bidez eskuratu ahal da (<http://notasmedias.aneca.es>).
- d. **Eskatzaileen Curriculum Vitae**.
- e. **NAN, atzerritarren identifikazio zenbakiaren edo pasaportearen fotokopia**.
- f. **Europako erkidegokotik kanpoko eskatzaileek Espainian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimena aurkeztu beharko dute, eskaria egiterakoan indarrean egon beharrekoa**, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 lege organikoan ezarritakoaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 lege organikoak emandako idazketan.
- g. **Gizarte Segurantzak lan bizitzari buruz emaniko ziurtagiria**.
- h. **Euskararen jakite maila egiaztatzeko ziurtagiria**. Eskariak aurkezteko azken egunera arte lortutako ziurtagiriak besterik ez da onartuko. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 dekretuak eragindako baliokidetzen kasuan, eskatzaileak dagokion ziurtagiria ere aurkeztu beharko du. **II. modalitatearen kasuan, euskara maila egiaztatzen duen ziurtagiriak C1 behar du, 3.6 oinarrian betebeharrak gisa ezarri bezala.**
- i. **Tesi zuzendariaren curriculum vitae laburtua**.
- j. **Tesi zuzendariaren doktore titularen kopia, bere doktorego tesia 1999 eta 2010 urteen artean defendatu duela egiaztatuz**.
- k. **Erantzukizunpeko adierazpena**, tesi zuzendariak sinatuta, 9. oinarrian deskribatutako betebeharrak betetzeko konpromisoa egiaztatuz eta tesiaren defentsa gauzatu ahal izateko ekonomia eta ikerketa baldintzak sortu ahal izateko. Dokumentu hau paperezko euskarrian aurkeztu beharko da.

- I. **Tesi zuzendariaren ekarpen zientifikoak jasoko dituen dokumentua, honetarako eredia deialdiaren II. eranskinean izanik.** Dokumentu hau 4.4 oinarriaren azken paragrafoak ukitutako pertsonak ez beste inork aurkeztuko dute.

10.2. Eskabideak eskatzaileak aurkeztu beharko du eta aurkeztutzat joko da baldin eta dokumentazioa UPV/EHUko Ikerkuntzarako errektoreordeari bidali bazaio, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan dauden erregistro nagusietako batean edo UPV/EHUren 2012ko maiatzaren 16ko erabakian (EHAA, 2012ko ekainaren 18koa) aipatzen diren bulegoetako batean aurkeztuta; nahi izanez gero, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Bateratuari buruzko 30/92 legearen 38.4 artikulua araberak ere aurkez daitezke.

Hauxe da erregistroetako ordutegia: astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30era; urte osoko ostiraletan, udako lanaldian eta udaberriko eta neguko txandetan, berriz, 9:00etatik 13:00etara.

Eskarrik edozein posta bulegotan ere erregistratuko ahal dira. Honelakoetan, dokumentazioa gutun irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko pertsonalak eskariaren lehenengo orria zigitatuko badu. **Ez da eskaririk onartuko, administrazio zigilu honen ezean.** Ondoren, dokumentazio osoa posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Ikerketaren arloko Errektoreordetza

Errektoregoaren eraikina

Sarriena auzoa, z/g

48940 Leioa (Bizkaia)

10.3 Eskarien idazketa:

10.3.1 I. modalitaterako eskariak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu ahal dira.

10.3.2. II. modalitaterako eskariak euskaraz aurkeztu behar dira.

10.3.3. Euskaraz idatzitako eskariekin batera 10.3.5. oinarrian aipatutako eskariko atalen ingeles edo gaztelaniazko bertsioak aurkeztu beharko dira.

10.3.4. Gazteleraz idatzitako eskariekin batera 10.3.5. oinarrian aipatutako eskariko atalen ingeles edo euskarazko bertsioak aurkeztu beharko dira.

10.3.5 ANEPak balioetsiko badu, euskaraz idatzitako eskariekin batera, ondoren zehaztutako atalak itzuli behako dira ingeles edo gaztelaniara:

- a. Ikerketaren helburuko gaiaren aurrekariak eta egungo egoera eta bibliografia.
- b. Ikerketaren helburu orokorrak.
- c. Metodologia eta egin beharreko ikerketa eginkizunak.
- d. Tesi zuzendariaren kalitate zientifikoa ikerketaren helburuko gaien.
- e. Ikerketarako behar diren azpiegituren erabilgarritasun eta kalitatea
- f. Eskatzailearen esperientzia.
- g. Deskribatu nahi diren bestelako alderdiak.

10.4 Eskatzaileek matrikularen inskripzioa formalizatu beharko dute eskarian adierazitako doktorego programan, UPV/EHUren Master eta Doktorego Eskolak (Mde) ezarriko lituzkeen epe eta tartetan.

11. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea 2016ko maiatzaren 27ra artekoa izango da.

12. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

12.1. Aurkezteko epea amaitu eta, gehienez, hogei egun balioduneko epean, jasotako eskaeren zerrenda argitaratuko da. Zerrendan adieraziko da nork osatu behar duen eskaera eta nork ez dituen dokumentu guztiak aurkeztu eta, zehazki, eskaera bakoitzean zer dokumentu falta den. Informazio hori Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da, <http://www.ikerkuntza.ehu.es>, "Doktorego aurreko bekak" atalean.

Ondoren, hamar lanegunen epea emango da adierazitako hutsuneak konpontzeko eta, **epe horretan, ezingo da eskabiderik osotasunean aldatu edo eskatu ez diren dokumentuak aurkeztu**. Epe hori igaro eta falta zena aurkeztu ez bada, eskatzaileak eskaerari uko egin diola ulertuko da eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak dagokion ebazpena emango du.

12.2. 12.5 eta 12.6 oinarrietan zehaztutako 2, 3 eta 4. ebaluazio irizpideen balorazioa kanpo prozesu baten bidez egingo da, ANEP bidez, eskarian ebaluaziorako adierazitako gai arloa aintzat hartuta.

12.3. ANEPek egindako ebaluazio txostenak Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzarako batzordeari bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen-proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

12.4. Euskara Batzordeak egingo du 12.6 oinarriaren 5. irizpidearen balioespena, atal honetako d oharrean adierazitako baremoa aplikatuz.

12.5. Deialdiaren I. **modalitatea** ebazteko, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

Irizpideak	Gehieneko puntuazioa
1.- Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe)(a)(b)	40 puntu
2.- Ikerketa proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, horren finantzaketa egokia barne	25 puntu
3.- Eskatzailearen esperientzia eta curriculum	10 puntu

4.- Curriculum vitae: doktorego tesiaren zuzendarien parte hartzea ikerketa proiektu aktiboetan eta doktorego tesien defentsan duten esperientzia	15 puntu
5.- Euskara maila (c)	5 puntu
6.- Doktorego tesiaren zuzendarietako batek doktore titulua lortu izatea 1999 eta 2010 artean, biak barne (pertsona bakarrarena hartuko da kontuan)	5 puntu
GUZTIRA	100

12.6. Deialdiaren II. modalitatea ebazteko, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

Irizpideak	Gehieneko puntuazioa
1.- Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe)(a)(b)	40 puntu
2.- Ikerketa proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, horren finantzaketa egokia barne	25 puntu
3.- Eskatzailearen esperientzia eta curriculum.	10 puntu
4.- Doktorego tesiaren zuzendarien curriculum vitae, parte hartzea ikerketa proiektu aktiboetan eta doktorego tesien defentsan duten esperientzia	15 puntu
5.- Euskararen arloan egindako ekarpenak (d).	5 puntu
6.- Doktorego tesiaren zuzendarietako batek doktore titulua lortu izatea 1999 eta 2010 artean, biak barne (pertsona bakarrarena hartuko da kontuan)	5 puntu
GUZTIRA	100

(a) oharra: Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (balorazio irizpideen lehenengo atala) eskatzaileak egindako titulazioaren arabera normalizatuko da, aurreko ikasturteetan UPV/EHUn titulazio hori egin duten ikasleen batez besteko notak erabiliz.

Eskaerako titulazioa ez badago UPV/EHUn, edo titulazio horri dagozkion batez besteko noten kopurua ez bada adierazgarria, aurreko ikasturteetan UPV/EHUko titulazioetan lortu diren batez besteko notak erabiliko dira normalizaziorako.

NORMALIZAZIORAKO ERABILITAKO FORMULAK:

Eskatzailearen_NK: eskatzailearen normalizazio koefizientea.

Eskatzailearen_BatezBestekoa: Eskaeran adierazitako espediente akademikoaren batez besteko nota haztatua.

Titulazioaren_BatezBestekoa: Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako batez besteko nota haztatuen batezbestekoa.

Gutx_NK: Titulazio guztietarako gutxieneko normalizazio koefizientea.

Geh_NK: Titulazio guztietarako gehieneko normalizazio koefizientea.

Titulazioko_DesbEstand: Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako noten desbideratze estandarra.

Eskatzailearen_NotaNormalizatua: 12.5 eta 12.6 oinarrietan ezarri diren gainerako irizpideetan jasotako puntuazioei gehitutako normalizazioaren ondoriozko emaitza, puntuazio orokorra lortzeko (bi hamartarretan biribildua).

NK_eskatzailea =

$$\frac{(\text{Eskatzailearen_BatezBestekoa} \times 10) - \text{Batezbestekoa}}{(\text{Titulazioaren_BatezBestekoa} \times 10)} \\ \text{Titulazioko_DesbEstand}$$

Eskatzailearen_NotaNormalizatua =

$$40 + 30 \times \frac{(\text{Geh_NK}) - (\text{Eskatzailearen_NK})}{(\text{Gutx_NK}) - (\text{Geh_NK})}$$

Ondoren, titulazio bakoitzeko normalizatutako puntuazio guztiak zerrenda bakar batean bilduko dira, handienetik txikienera ordenatuta.

Titulazio bat baino gehiago egin badituzte, 3.3.1 oinarrian ezarritako denbora baldintza betetzen duena erabiliko da normalizaziorako.

(b) oharra: Espainiako unibertsitate sistematik at lortutako espedienteen kasuan, aipatutako 1. irizpidean Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzia Nazionalak (ANECA) atzerrian egindako unibertsitate ikasketen batez besteko nota baliokideak kalkulatzeko zerbitzuaren bidez esleitutako balioa aplikatuko da, baldin eta baliokidetza hori beharrezkoa bada lehiaketa prozesu batean aurkeztu ahal izateko.

ANECAk igorritako egiaztageria deialdiaren 9. oinarrian adierazitako gainerako dokumentazioarekin batera erantsi beharko da.

Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, 1. irizpideari dagokionean 10 puntu esleituko dira

(c) oharra: Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara mailaren egiaztageria aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztageria eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 egiaztageria eta baliokideak: 3 puntu.
- Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

(d) oharra: Euskararen arloan egindako ekarpenak.

Irizpide hoen ebaluazioa Euskara Batzordeak egingo du, honako baremo hauek aplikatuta:

- Eskatzailearen merezimenduak: C2, euskaraz egindako MAL eta/edo GRAL, euskaraz egindako dibulgazio zientifikoa.
- Doktorego tesiaren zuzendarien merezimenduak: C1 edo C2, euskarazko tesien zuzendaritza, euskarazko ekoizpen zientifikoa.
- Euskarazko ikerketa proiektuaren hizkuntza kalitatea

13. oinarria. EBAZPENA

13.1. IGBBk behin-behineko ebazpena egingo du. Interesdunei horren berri emango die eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko du. Eskatzaileek ebaluazioan lortutako puntuazioa ere adieraziko du. Eskatzaileen sailkapena bereizita egingo da I. eta II. modalitateetako bakoitzean.

Honez gainera, jakinaren gainean jarriko Euskara Batzordea II. modalitatearen ebazpenari dagokionean eta argitara emanen da Euskararen arloko Errektoreordetzaren webgunean.

Interesatuak hamar egunen epea izanen du, gehienez, zeinek bere onarpena, ukoa edo egoki leritzokeen alegazioak adierazteko.

Aipatu epean alegaziorik edo ukorik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

13.2. Aipatutako epea igarota, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak alegazioak helaraziko dizkio Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeari, honek azter ditzan eta emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpen proposamena egin diezaion Ikerketaren arloko errektoreordeari.

13.3. Eskatzaile berak deialdiaren bi modalitateetan parte hartzen duenean, hurrenez hurren, bi modalitateetako bakoitzean 12.5 eta 12.6 oinarrietan ezarritako irizpideak aplikatuz lortutako azken puntuazioak kontratazioa eraginez gero, deialdi honetako II. modalitatearen bidez kontratatu beharko da.

13.4. Behin betiko ebazpenerako proposamena Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunean emango da argitara, deialdiaren modalitateetako bakoitzean, eskarian adierazi bezala, eskatzaileek lortutako azken kokapena adieraziz.

Era berean, Euskararen arloko Errektoreordetzaren web gunean argitaratuko da II. modalitatearen behin betiko ebazpena.

Honez gain, kontratazioaren emate edo ukatzeko azken ebazpena banaka jakinaraziko zaio interesatu bakoitzari, egindako ebaluazioaren kopia bat atxikita.

13.5. Ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legearen 116 eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Era berean, aipatu ebazpenaren kontrako administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

13.6. Deialdi hau argitaratu eta sei hilabetetara, iragarki-oholetan kontratazioak adjudikatzeko erabakirik argitaratzen ez bada, interesatuek ezetsizat har dezakete beren eskabidea, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Bateratuari buruzko azaroaren 26ko 30/92 legearen 44.1 artikulua dioen moduan.

13.7. Eskatzailearen batzuen berdinketa gertatuz gero azken puntuazioan, honako irizpide hauen arabera ordenatuko dira eskariak, hurrenez hurren, berdinketa hautsi arte:

- a. espediente akademikoaren batez besteko nota haztaturik altuena lukeen eskaria lehenetsiko da (12.5 eta 12.6 oinarrien 1. irizpidea).
- b. I. modalitatearen kasuan, lehenetsiko da modalitate honetan arrakasta tasarik txikiena lukeen zientziaren arloari legokiokeen eskaria (arrakastaren %a eskariko, arlo bakoitzean).
II. modalitateko eskarien kasuan, lehenetsiko da 12.6 oinarriaren 5. irizpidean puntuaziorik onena lortutako eskaria.
- c. Lehenetsiko da I. modalitatean 12.5 eta, II. modalitatean, 12.6 oinarrien 2. irizpidean puntuaziorik onena lortutako eskaria.

14. oinarria. KONTRATUA FORMALIZATZEA

14.1. Kontratuak formalizatu baino lehen, kontratazioen adjudikatarioek laguntza lortzeko alegatu dituzten betebeharrak eta merezimenduen egiazkotasuna agertu beharko dute. Egiaztatu ezin balute, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak laguntza ukatzeko ebazpena emango du.

Dokumentazio hau agertzeko epea eman eta ezetsitako laguntzen behin-behineko ebazpenean adieraziko da.

Kontratuen adjudikaziodunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte Ikerketaren arloko Errektoreordetzan:

- a. Eskarian adierazitako doktorego programako matrikularen gordekina.
- b. Deialdi honen adjudikaziodun gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendariak eta saileko/institutuko zuzendariak ontzat emana.
- c. Identifikazio-fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte-Segurantzako afiliazio-zenbakia dituenak.
- d. Zinpeko aitortpena, non interesatuak adierazten duen inoiz ez dela egon kontrataturik Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 legearen 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- e. Lanean hasi izanaren ziurtagiria.
- f. Pertsona minusbaliatuen kasuan, jarduerarako minusbaliotgasunen maila egiaztatzeko ziurtagiria eskatuko da, ehunekotan emana, minusbaliotasuna aintzatetsi, aitortu eta sailkatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 errege dekretuaren arabera.
- g. Kasuan kasuko ikerkuntzarako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.

Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratuari uko egiten zaiola ulertuko da.

14.2. Aurreko atalean adierazitako baldintzak bete eta hurrengo hilabetean formalizatuko dira kontratuak eta kontratatutako langileak dagokien unibertsitate sail, institutu edo gunetan lanean hasiko dira.

Adierazitako egunean adjudikazioduna kontratua sinatzera etorriko ez balitz edo sail, institutu edo gunean lanean hasiko ez balitz, kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

14.3. Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, Ikerkuntzarako errektoreordeak baimena eman dezake hasteko eguna gehienez sei hilabetez atzeratzeko. Atzeratzeko eskaera 14.1. oinarrian ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko da.

14.4. Eskariak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da eta, hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

14.5. Kontratua sinatu eta sei hilabetetara, Ikerkuntza gestiorako zuzendaritzak (IGZ) ofizioz egiaztatuko du onuraduna eskarian adierazitako doktorego programan matrikulatuta dagoela, bai eta tesiaren zuzendariak azkenik bertan adierazitakoa direla ere. Bi betebeharrak hautakoren bat bete ezean, kontratua atzera botatzeko arrazoitzat hartuko da.

15. oinarria. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA

15.1. Deialdi honen bidez aukeratutakoek ez dute UPV/EHUrekin lan kontratu harreman egonkorrik izango eta aldi baterako kontratu harreman hori kontratuaren iraupenari dagokion aldia igarotakoan amaituko da.

15.2. Deialdi honen kargura finantzatutako kontratuak ez dira bateragarriak kontratatutako ikertzaileek eduki ditzaketen lan kontratuekin, edo soldata izaera duen edozein diru-kopuru jasotzearekin, 5.1. oinarrian ezarritako arduraldi osoko erregimenaren arabera.

16. oinarria. UKO EGITEAK, BAJAK ETA KONTRATUAREN AMAIERA

Deialdi honen bidez kontratatutako langileen ukoen, bajen eta gainerako gorabeheren berri tesi zuzendariak edota kontratatutako langileak berak eman behar dio, hori eragin duena gertatu eta hiru egunen buruan, UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen arloko Errektoreordetzari; jakinarazpenari gehitu behar dizkio kasu bakoitzari dagozkion egiaztapen dokumentuak.

Kontratatutako ikertzaileak berak eman behar dio Irakasle eta Ikertzaileen arloko errektoreordeari uko egiteen, bajen eta gainerako gorabeheren berri.

17. oinarria. JARRAIPENA

17.1. Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonalak laguntzaren baliatzeko beharko liratekeen txosten, inprimaki eta gainerako dokumentu guztiak bete beharko ditu; hain zuzen ere, Ikerketaren arloko errektoreordetzak edo/eta deialdi honen kudeaketan laguntzen duten gainerako sailek edo zerbitzuek eskaturikoak.

17.2. Oro har, dokumentu horiek deialdi honetarako argitaratzen diren ereduaren arabera beteko dira eta kontratuak indarrean ematen dituen urteetako bakoitzaren ondorengo lehenengo hilabetean aurkeztuko zaizkio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

17.3. Kontratua amaitu eta hilabeteko epean, amaierako txosten bat aurkeztuko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzan, kontratuaren indarraldian zer jarduera egin diren ezagutarazteko.

18. oinarria. KONTRATUEN ETETEA

Lan kontratua ondorengo arrazoietakoa batengatik etengo da:

- a. Kontratuak berak uko egitea.
- b. Kontratuaren indarraldia amaitzea.
- c. Eskarian adierazitako doktorego programan matrikulaturik pertsonaren izaera galtzea.
- d. Laguntza emateko aintzat hartutako betebeharrak bete ez edo baldintzak aldatzea, barne izanik doktorego programako matrikula edo eskarian adierazitakoez besteko tesi zuzendariekin aritzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren baimenik gabe.
- e. Tesi zuzendariak eta doktorego programaren arduradunak hala eskatuta, tesi zuzendariak eta doktorego programaren arduradunak abalaturako txostenak arrazoituz gero.
- f. Laguntza ezeztatzea, onuradunak betebeharrak ez betetzeagatik, edo laguntza eman zitzaionean aintzat hartu ziren baldintzak aldatzeagatik.

- g. Gerora sortutako bateraezintasunen batengatik.
- h. Laguntzarako aurrekontukrediturik ez dagoelako.
- i. Doktore titulua eskuratzea

19. oinarria. IKERKETA JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIOAK

19.1. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- Indarreko arautegia betetzea: ikerkuntza biomedikoaren 14/2007 legea, biobankuei buruzko 1716/2011 ED, pazientearen autonomiari buruzko 41/2002 legea, datuen babesari buruzko 15/1999 legea eta UPV/EHUren datu pertsonalak babesteko 2008ko arautegia.
- CEID/CEISH-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

19.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimintatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ordeztu, murriztu eta fintzeko irizpideak errespetatu, nazioartean sustatu bezala.
- Animaliekiko ikerkuntzaren arloan (53/2013 ED) indarrean den arautegia bete.
- Animaliekiko Esperimentaziorako Ikerketako Batzorde Etikoaren (AEIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

19.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Prebentzio, zuhurtasun eta informazioaren printzipioak errespetatu, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionean.
- Arlo honetan indarrean den legeria bete: laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 legea; langileen agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko 664/1997 ED; langileen agente kantzerigenoen esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko 664/1997 ED; genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duen 9/2003 legea eta 178/2004 ED.
- Agente biologikoekiko eta/edo genetikoki eraldatutako organismoen Ikerketako Batzorde Etikoaren (ABIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko

txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUKo ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

19.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarrizko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira (2011ko abenduaren 2koa, ostirala, EBO; 290. zk.).

19.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ezta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

20. oinarria. DEIALDI HONEN LEHENAGOKO DEIALDIETAN KONTRATATUTAKO PERTSONALARI ERAGINDAKO ONDORIOAK

Deialai honek dakarren arau multzoa erabat zaie aplikagarri, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren doktorego aurreko prestakuntzan ari diren ikertzaileak kontratatzeke lehenagoko deialdien babesean kontratatu den doktorego aurreko prestakuntzan ari diren ikertzaileei.

Euskararen arloko Errektoreordetzaren leheangoko deialdien bidez kontratatutako doktorego aurreko prestakuntzan ari diren ikertzaileak deialdi haietan ezarritako araubideari jarraituko zaizkio.

AZKEN XEDAPENA

Interesatuek aurkaratu egin ditzakete deialdi hau, bere oinarriak eta deialdiak eragindako administrazio-egintzak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak eta Administrazio Auzietako Jurisdikzioaren Legeak zehaztutako eran eta epean.

Leioa, 2016ko apirilaren 21ean

Fernando Plazaola Muguruza
Ikerketaren arloko errektoreordea